

Bidebieta

Emakumeak zahar etxean lanean

Sei emakume berritasatu berri dute zahar etxeko zuzendaritza batzordea. Amparo Naranjo auzotarra da presidentea eta berarekin mintzatu gara.

Zuzendaritzako kide guztiak emakumeak dira. Zergatik?

Orain arte gizon batzuk izan dira zuzendaritzan, baina, aspertuta edo, ez dute jarraitu nahi izan. Zenbait emakume jabetu ginen inork zahar etxearen gidaritza hartu eze-

an, tailerrak eta beste hainbat ekintza galzorian zeudela. Hori dela eta, aurreko zuzendaritzaren lekukoa hartu dugu.

Zeintzuk dira hobetu beharreko gauzak?

Gutxienez, orain arte bezala jarraitu nahi genuke. Ekiten batzuk oso jendetsuak dira, bingoa, adibidez. Gerora begira, bestalde, liburutegia hobetu nahi dugu. Liburu gehiago eta hobeak jarri nahi ditugu bazkideen esku.

Zahar etxearen sorrera ezagutu zenuen. Zein aldaketa izan dira urteotan?



1983an zabaldu zutenean ileapaindegia ere bazegoen, eta jendetza biltzen zen. Ileanpaindegia duela urte batzuk kendu zuten, ordea, eta orduz geroztik, ez da hainbeste jende etortzen. Dena dela, egun ia 400 bazkide ditugu eta udan, batez ere, kanpoaldeko eserlekuak lepo egon ohi dira.

Bidebieta sortu zeneko garaiaz gogoratzen al zara?

Bai, noski. Ni ia-ia Trintepen bizi naiz, Pasai San Pe hiribidean hain zuzen, eta goan dut dorreak egin aurreratu Moneda baserria, Guardapizeneko etxe multzoa "Txintxua" izeneko erretxoa besterik ez zeudela egongo Bidebietan. Dendarik ez goenez, Trintxerpera ezintean joan behar genuen eketak egitera.

Amara Zaharra

Baloi atzetik kementsu

Vasconia-ko emakume futbol taldea duela lau urte sortu zen. Aurten, zortzigarren sailkatu dira Liga txapelketan eta egun Kopan ari dira. Naiara eta Irati taldekideekin hitz egin du-

Asier Coloma

Taldekideekin hitz egin du Naiara eta Irati futbolzaleak eta Vasconian hasi aurretik, biek Ikasbiden eta Amara Berririko taldeetan jokatu zuten. Naiara atzelaria da eta Irati hegalekoa. Futboleko gizonzakoek komunikabideen eta zaleen arreta osoa berenganatu

ohi dute, baina Vasconian eta, oro har, emakumezkoen taldeetan, lana gogotik egiten dutela nabarmendu digu bikoteak: "Astean ordu eta erdiko bi entrenamendu saio egiten ditugu eta asteburuko partida jokatzen dugu". Hori bai,

igande goizetan jokatu beharra ez dute gogoko. Larunbatean parrandan ibiltzeko aukerarik ez dutelako izango ote da?

Azken urteotan, Donostian, emakumezkoen futbolak gora egin du. Gaur egun, neska as-



ko ari dira Groseko, Amara rriko edota Parte Zahar taldeetan eta baita Lube Intxaundi edota Añorga taldeetan ere. Naiararen hitzetan: "Euskal Herrian, Gipuzkoako daude talde gehienak".

Futboleko matxismoa dagoen galdetuta, noizbait takeriaren bat entzun behar izaten dutela dio Irati: "Behin baino gehiagotan iratzen futbolak berez futbolak dela entzun behar izaten dugu, baina horrelako txorieriei ez diegu jaramonik ematen".

Vasconia Gipuzkoako hainbat talderekin lehiatzen da Liga eta aurten zortzigarren sailkatu da. Egunotan Kopan txapelketak prestatzen ari dira iratzen.